

# Bakegintzarako zortzi proposamen

## BAKEA *bakegintzaren emaitza*

Bakea ez da inoren ondare guztion eginkizun delako. Horrela, bada, etengabeko prozesu kolektibo eta koordinatuaren emaitza, bakegintzaren fruitua eta ez beste ezer, izango da bakea.

Bestalde, bakea ez da zerbait 'neutroa'; edozein pertsonak zein taldeak bere interesen arauera maneiatu dezaken eta maneiatu egin ohi duen balorea da. Maneiu-tentaziotik libre inoz ez dagoenez, herriarekiko zintzotasuna, hots, herriaren historiari, egungo egoerari eta etorkizuneko proiektuari zintzo atxekitzea izan daiteke, ezer izatekotan, berme bakarria bakearen aldeko jarreraren eta ahaleginen benetakotasuna neurtzeko.

Herriarentzat eta herritarrentzat aldarrikatzen den funtsezko ondasuna izaki, ezinbestekoa da herriak eta herritarrek pairatzen dituzten indarkeria guztiez —bake-ezaren agerpeideak azken finean— ondo jabetzea, beraien sorrera ezberdinen eta indarkeria guztien arteko erlazioa aztertuz. Eta jarrera eta lan hau ez da bat ere erraza; ez teknikoki aparteko zailtasunik duelako, interesak tarteko direlarik, ikusmolde pertsonalista eta alderdikoiak objetibotasunaren gainetik jartzen direlako baizik.

Ba da, izan, baldintza bat ezinbestekoa dena azterketa honen abiapuntua eta garapena egokia izan dadin. Herri guztiei, jatorrizko eskubidez, subiranotasuna dago. Beraz, subiranotasun horri begira aztertu beharko dira herri horren aspirazioak. Eta horrexegatik subiranotasun hori ukatzen zaion artean eta heinean, arrazoia dagoen bezalaxe, subiranotasuna onartzean herriaren arteko adiskidetzeta eta solidaritza areagotzeko bideak zabaldu eta erraztu besterik ez da egiten.

### Bakegintzaren mezu biblikoa

Gizasemeon eguneroko ibilbidean gurekin batera bide eginez gauzatu beharreko eginkizuna dugu Bibliak iragartzen digun bakegintza (Is. 9,5; 45,7; Sal. 35,27).

Eta ibilbide hori baketsua izan dadin ba dira

mezu biblikoak azpimarratzen dituen zenbait baldintza eta eginkizun, gaur egun aldarrikatzen diren berdintsuak juxtu, hala nola, justizia bidezko askapena, amnistia, berdintasuna, elkarbizitza, Jainkoaren proiektu baktzailere-kiko zintzotasunaren ezaugarri eta berme izan behar duen herriarekiko zintzotasunaren hitzarmena... Beraz, itun biblikoa ez da botereaz bermatzen den hitzarmena, Jainkoak herriarekiko duen konpromezua baizik.

Eta horrela ondorioztatzen da prozesu baktzaileren erdigunea justizian datzala. Bakearen ardatza, bidea, norabidea eta erizpidea justizia da, ez bait dago bakerik justiziarik gabe. Justizia da bakea sortzen duena eta ez alderantziz.

### Bake biblikoa, gaur egun, Euskal Herrian gauzatzea: gure proposamenak

Bakeari buruzko nahasmen interesatuak direla eta, batetik eta indarkeria-guneak areagotu egin direlako, bestetik, ba dira kezkatuta egoteko motiboak. Baina erosta eta kondena hutsetan ez gelditzeke, gure proposamen konketuak aldarrikatzen ditugu:

— Guztiei, hots, Gobernuari, Armadari, Elizari, alderdi politikoei, hezitzaileei, gizarte-mugimenduei, talde baktezaileei... zera eskatzen diegu, edozein gatazka bideratzeko elkarriketaren kultura, kontsentsua, akordio negoziatuak, gogohanditasuna eta solidaritza hobetsi eta bultzatzea.

— Pairatzen dugun indarkeria politikoren egoera deserrotuz joan dadin, harremanen, elkarriketen, distentsio-keinu zehatzen... indartzea erregutzen dugu.

— Gure Herriaren autodeterminazioa egi bihurtzeko beharrezko baldintzak ezarritako dituen prozesu parlamentarioaren ezarpena eskatzen dugu.

— Dei egiten diegu langileen, intelektualen, artisten, profesionalen... talde guztiei elkarriketa eta prozesu negoziatzailearen aldeko go-goeta eta ekintzarako plataforma hiritarra, Eus-

kal Herrian, bultza dezaten.

— Amnistia aldarrikatzen dugu, gure Herriaren etengabeko eskakizuna, baktzerako ezinbesteko bitartekoa baita.

— Kartzeletan giza eskubideak errespetatzea eskatzen dugu, eta torturen desagerketa eta, halaber, kartzela-zigorrek presoaren sorlekuetan bete ahal izatea.

— ETari eta Gobernu espainiarrari zera eskatzen diegu: lehenengoari, erasoak geldiaraztea erabaki dezala; bigarrenari, has dezala berehala aldeanitzetako elkarriketaren dinamika eta bien arteko prozesu negoziatzailea euskal eremuko alderdi politikoko guztien partaidetzaz.

— Euskal Herriko Elizarengandik eta beraren ordezkari esanguratsuenengandik edozein instantzian egin dezaken bitartekotzaren eskaintza itxaroten dugu, Euskal Herriaren baktzailerantzko urratsa izan daitekeena eta gaur egun moko moko ari diren partearen artean errekon-tziliapen giroa sortzeko urrats konketuetatik abiarazteko balio dezakena. Ekimen hauekiko gure atxekimendua eta lankidetzeta eskaintzen ditugu.

Baktzea gaur egun Euskal Herrian dugun langintza ebanjelizatzailearen funtsezko eginkizun bat da. Eginkizun honen bidez ezagutuko dute katibuei, pobreei, zapalduen... askapen mezua iragartera etorri zenaren (Lk. 4,18) jarraitzaile garelako. Bakearen Ebanjelio honetara bihurtzeko eta horretan sinesteak mundu ezberdina egitea esan nahi du, bihotzak aldatzea, gizon eta emakume berriak egitea, solidarioak eta anaikorrak.

## C. MOLINUEVO, F. PLACER, F. VERGARA ETA M. ORBE

EUSKAL HERRIKO APAIZEN KOORDINAKUNDEKO KIDEAK

# Mikel Bujandaren susmoen itzalak

## NORK

bere bidea, baina beestena zapaldu gabe erantsiko nioke Mikel Bujandak idatzi zuen azken artikuluaen tituloiari.

Hasieratik argi utzi nahi nuke hemen eztabaidatzen ari gareneko ez dela Opus Deiren alde ala kontra egotea baizik eta beste gauza bat. Nik zuzendariari bidalitako eskutitzaren bidez salatu nuen Bujandaren jokaera, eta adierazten nuen ez dela legezkoa ezta bidezkoa ere Opus Deiren fundatzailearen beatifikazio prozesua tranparen bidez egin dela zabaltzea, datu bat eman gabe, eta gero 'nork bere bidea' aldarrikatzea, hemen ezer gertatu izan ez balitz bezala.

Egia da azken artikuluan datuak ematen saiatzen dela bere eritiz prozesuak izan dituen abantailak aipatuz: Erreforma ondotik tramiteak arinagoak direla, prozesuaren zati luzeena Madrilin egin dela, eta juez instruktorea zaharra dela. Konforme, horiek datuak dira, baina argi dago datu horiekin ezin dela oso urrutira joan. Oker dabil azken hamar hamabost urteak aztertu dituztela bereziki, eta okerrago testigantza eman duten lekuko datuak ematera koan. Ez dira hirurogei izan, baizik eta larogei ta hamabi, eta horietatik, berriro errepikatuko dizut, erdiak baino gehiago ez ziren Opusekoak.

Hemen bukatzen dira bere benetako datuak eta hemendik aurrera irudimenari askatasun osoa emanez susmoen itzalak suspertzeko aha-

legin guztiak egiten ditu. Harriztekoa da diruaren kontua hemen ere ateratzea. Zer gertatu da, Opus Dei sartu denetik garestitu egin al dituzte Vatikanon beatifikazio prozesuak? edo Opusek erosi al ditu beatoak egiteko Elizako 'partizipazio' guztiak? Hori ere entzuteko modukoa izan da!

Gotzaien eskaera ulertzeko ez da hainbeste korapilorik egin behar. Kinberrialagoa da Elizak dituen gotzai guztien herenak prozesuaren hasiera eskatzea, baina 'kinberrialagoa' da hiru gotzaietatik, hasiera eskatu ez zuten biak, prozesuaren kontra daudela pentsatzea. Orduan Kataluniako azken hauteskudeetako abstentzioa ikusi ondoren erabaki beharko genuke ia ia kataluniar erdiak Puyolen kontra daudela. Ez dute parte hartu eta kitto!

Zirarda aipatzen duzu zure aldera eramanez, baina hona hemen, hilabete honetan bertan berak esandakoak: «Es justo que los navarros al igual que los miembros del Opus Dei demos gracias a Dios por el gozo que nos concede al enriquecer nuestra historia religiosa con la exaltación de figuras que supieron vivir y morir de amor de Jesucristo desviándose para dar testimonio del Evangelio» (Elizbarrutiko Aldizkari Ofizial. Martxo) Ez dut gehiago esan beharrik.

Hala ta guztiz ere Bujandak argudio interes-

garriak erabiltzen ditu; begira zer dion: «Halako auzibidetan, teknika prozesalaz ezagutzeak ematen du bentajarik gehien» eta «Gainera, talde profesionalizatu, osotara honetara urtean emana funtzionatzen badaki Opusen aparatoak». Ez nuen pentsatzen azkenean arrazoia emango zidala, zeren eta hau baita nik defenditzen dudana: ez da txantxetako lana egin prozesu honetan. Ba zekiten parte hartu dutenek eta ez dutenek horrelako zirikatzailak sortuko zirela, arrazoi handiago prozesuaren azterketan zirrikitu bat ere ez uzteko. Gainera mundu profesionalean Opuseko bazkidei egiazko seriotasuna exijitzen batzaie, nola ez kasu honetan!

Amaitzeko, Bujandak dio Opus Deiko fundatzaileak bizitzaren erdia saildu ofizial egin zezatela eskatuz pasatu zuela. Argi ageri dira hemen ere Bujandaren hutsunak. Ez dakit nondik ateratzen dituen gizon honek zurrumuru hauek baina benetan Berak zabaldu zuena da kristau guztiak santutasuna lortu behar zutela bere eguneroko eginbeharrak eginez eta bere lanaren bidez. Baina gauza hauetaz hitzegiteko ere zeozer jakin baher da. Ez da nahikoa zabor guztiak besteari burutik-behara botatzea.

## JUAN CARLOS MUJICA

EKONOMILARIA

## BERRIAKZIRI



**GABRIEL URRALBURU**  
PSNko idazkari nagusia  
ABC

«Ajuria Eneako Hitzarmena gainbehera doa alde guztietatik»



**INIGO IRUIN**  
HBko buruzagia  
EL DIARIO VASCO

«Euskal alderdiak prest baldin badaude subiranotasunaren konpromezu politikoa hartzeko indarkeria soberan dago»



**ALEXANDER BESMERTNIJ**  
Ministro soviatar ohia  
EL MUNDO

«Perestroika diseinatu zuten politikoez ez zuten Soviet Batasuna bereizteko inolako asmorik»



**JEAN MARIE LE PEN**  
Fronte Nazionalako lehendakaria  
DIARIO 16

«Inmigratioaren arazoa Frantzia zein Europa-arentzat hil ala biziko kontua da»

## ZAKILIXUT

© Olariagak

